



'Mariachi' taldeak Sanjoanetan Hernanin arrakasta handia izan zuen.

## Sanjoanak antolatzeke bilera gaur, Biterin

■ Udaletxeko Kultura Sailak Jai Batzordea deitu du gaurko, arratsaldeko 18:00etarako ■ Jaietarako proposamenak aurkezteko epea aurreko ostiralean bukatu zen.

KULTURA Sailak Sanjoanetako Jai Batzordea deitu du gaur arratsalderako, festetako egitaraua osatzen joateko. Jaietarako proposamenak egiteko epea aurreko os-

tiralean bukatu zen ofizialki eta orain jaiak moldatzen hasteko garaia izango da: ekitaldiak, aurrekontuak eta abar. Aurten Sanjoanak erabat astebarruan egokituko

dira: Sanjoan bezpera astelehena tokatzen da eta, orain arte bezala segitu ezkerostiralean bukatuko dira Base-rritar egunarekin. Jai Batzordearen bilera, gaur arra-

tsaldeko 18:00etan da, Biteri kultur etxean.

Bestalde, Sanjoanetako kartela egiteko lehiaketa ere zabalik dago. Informazio gehiago, Biterin. □



2001eko Korrika Hernanin barrena.

## 'Korrika' gaur aurkeztuko dute

KORRIKA 13 ari da motorrak betrotzen eta AEK-k gaur arratsaldean egingo du Hernaniko aurkezpen ofiziala. Aurkezpena 20:00etan da Biterin eta Korrikari buruzko informazio orokorra eta Hernaniko zehaztasunak emango ditu: ibilbidea, ordua, kilometro salmenta... eta abar. Ekitaldian orain dela bi urteko Korrikako bideoa ere botako dute. Aurkezpen bukaeran Korrika 13 Batzordea egingo da eta AEK-k laguntzeko pronto dauden talde, elkarte, eta pertsona guztiak konbidatu ditu.

Bestalde, Korrika Txiki Batzordea bilduko da AEKn bertan, gaur 16:45etan. □

## Feminismoaren tendentziei buruzko mahai ingurua

BIHAR mahai ingurua egingo da Biterin mugimendu feministaren tendentziei buruz. Mahai ingurua Ongintzako Berdintasun Sailak antolatu du martxoak 8aren bueltan egindako ekitaldien artean, eta honako hauek arituko dira hizketan: Aitziber Zapiain, Oihana Urrestarazu, Oihana Insausti, Lurdes Barragan, Jone Egaña eta Eulali Aranburu. Mahai ingurua arratsaldeko 20:00etan da. □


## JUBILATU ETXEA

### Iratxera joateko sortea

JUBILATU Etxeak Iratxera eskurtsioa antolatu du eta astelehenan egin zuen sortea aurreko autobuserako. Bigarrena gaur sorteatuko da, 17:00etan. □

## Pello Zubiria baldintzapean libre utzi du epaileak, 12.000 euroko fiantza ordainduta

■ Zubiriaren ingurukoek gaur 19:00etan ongiatorri xume bat egingo diote Karobi auzoan, etxe ondoan.



Pello Zubiria atzo goizaldean iritsi zen Hernanira.

PELLO Zubiria atzo iluntzean atera zen Madrilgo Soto del Real kartzelatik, 12.000 euroko fiantza ordainduta. Zubiria otsailaren 20an atxilotu zuen Guardia Zibilak etxean, Egunkariaren kontrako operazioan. Komisarian inkomunikatuta zegoela Gregorio Marañon ospitalera eraman behar izan zuten oso osasun egoera larrian.

Familiak astelehen arratsaldean jakin zuen Zubiriaren baldintzapeko askatasunaren berri. Madrilan, kartzelatik ateran, familia, lagunak, Argia eta Egunkariako jendearen agurra jaso zuen

Pello Zubiriak. Hernanin ere ongiatorria egitekoa zioten. Gaur arratsaldean ere ongiatorri xume bat egingo diote etxe inguruan (Karobin, Langile ikastola azpikaldean)

Zubiria libre utzita, Guardia Zibilak atxilotutako 10 pertsonetatik 7 kalean dira; eta Oleaga, Uria eta Alegria dira oraindik kartzelan jarraitzen dutenak.

Epaileak jarritako 12.000 euroko fiantza dela-eta, bi kontu zenbaki jarri dira lagundu nahiko lukeenaren eskura: Laborala: 3035014-0321400019900 eta Kutxa: 21010069180011334026. □

**Kulunka** - Egurraren zaharberritzea  
- Tapizeria  
- Artisautzazko marketeria

Kontserbazio eta zaharberritze lantegia  
Tellerigain, 49 - kulunka@gabiltza.org  
Tel. 943 551 739 - 667 721 434

**SAGARDOTEGIA tolare**  
**IPARRAGIRRE**

HERNANIKO SAGARDOA OSINAGA AUZOA  
943 55 03 28

Asteazkenetik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz.  
Tel. 943 55 03 28

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA

Astearretik Larunbatera irekita

Altzuetasagardotegia S.L.  
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: altzuetasagardotegia.com

**YONE**  
boutique

**UDABERRI UDĀKO**  
denboraldia hasi dugu.  
Gustatuko zaizu.

Nagusia 63 (Hernani)  
Hipodromo etorb. (Lasarte)

## SAGARRONDOTIK JAIA ASTEBURUAN

### Txantxillako aparkalekua itxita dago, eta asteburuan kanpoko trafikoa poligonoetara bideratuko da

■ Ostiral, larunbat eta igandeko zenbait ordutan herri barruko kale batzuk itxita egongo dira kanpotik datorren trafikoarentzat, baina ez herritarrentzat.

ASTEBURU honetan Sagarrondotik ekimenaren festa dago Hernanin eta herriko trafikoa zenbait aldaketa ekarriko ditu. Karpa Txantxillako aparkalekuan jarriko da eta astelehena ezkeretik ez dago hor aparkatzerik, montaketa lanetan ari direlako. Parkina datorren asteazkenean zabalduko dute berriz.

Ostiraletik igandera, berriz, zenbait kale itxita egongo dira kanpotik datorren trafikoarentzat. Neurri horren helburua da trafikoa poligonoetara eta periferiara desbideratzea, zenbat jende etorri litekeen ikusita. Itxita egongo diren puntuak dira Zinkoenea, Orkolaga, Elkano, Marieluts, Axala, Tellerigain eta Portuko aldapa. Puntu horietan Sagarrondotik ekimeneko antolatuntzako jendea egongo da eta herritarrek ez dute kotxez ibiltzeko arazorik izango.

Puntu bat ordea, erabat itxita egongo da guztientzat. Elkano eta Izipuzua arteko kruzehori (Urumea ikastola aurrea) erabat itxita egongo da bai Axala aldera joateko eta baita Larramendi eta Lizeaga aldera segitzeko ere. Karpa inguruan



Txantxillan hasi dituzte karpa jartzeko prestaketa lanak.

### TRAFIKO ALDAKETAK ASTEBURUAN

#### Kanpoko trafikoarentzat itxita diren herri-sarrerak

Zinkoenea, Orkolaga, Elkano, Marieluts, Axala, Tellerigain eta Portuko aldapa

#### Herriko trafikoarentzat ere itxita egongo direnak

Elkano-Izipuzua kruzetik ezingo da segitu ez Axala aldera eta ez Lizeaga edo Larramendi aldera. Beraz, Elkanotik gora igotzen denak Izipuzatik jeitsi beharko du. Udalak Karabeletik barrena ibiltzeko aholkua eman du.

#### Kaleak itxita egongo diren orduak eta egunak

Ostirala 21: 20:30-05:30; larunbata 22: 10:00-14:00 eta 16:00-05:30; igandea: 10:00-14:00 eta 16:00-22:00;

jende asko ibili litekeela eta arriskuak ebitatzeko hartu du Udalak neurri hori. Beraz, Elkano kaletik gora datorrenak Izipuzan behera jeitsi beharko du. □



Karobi elkarteko zuzendaritzako kidea joan den igandeko batzarrean.

### KAROBİK, ASANBLEA.

Karobi elkarteak igande honetan egin du urteko asanblea. Karobik iazko balantzea egin

eta 2003ko aurrekontua onartu zuen. Karobi Elkarte orain dela urte gutxi sortu zen Latsubeberri, eta urte bukaera

aldera antolatzen ditu kultur ekitaldi gehienak, elkartearen urteurren ospakizunarekin batera. □

### JASOTA BEZALA

**Gu ilegalak zu zergatik ez**  
Hilabeteak dira Batasunaren ilegalizazioa aurreikusita zegoela eta jada Madril egiten gaituenak ezer gutxi harritzen gaitu. Are gehiago, ikusitakoa ikusita Euskal Herriaren alde lanean ari den edozein ohorea da, oso ohore arrisku-tua hori bai, Madril jazarpena jasatzea. Gure herriarekin zeinek duen egiazko konpromisoa antzemateko frogatzea modukoa bihurtzen ari da ilegalizazioaren kontua. Aldiz, beren jardura arazorik eta trabarik gabe gauzatzen duten al-

derdi politikoez edo taldeez gero eta zailtasun gehiago dute sinesgarritasuna lortzeko, eta beste hitzetan esateko XXI. mendeko euskal labela lortzeko.

Benetan garai harrigarriak dira hauek, non oinarriko eskubide zibil eta politikoen aldarrikapena eta defentsa, (Euskal Herriaren lurraldetasuna, autodeterminazio eskubidea, adierazpen eta biltzeko askatasuna,...) ekintza subertsiboa eta iraultzailea den. Aldi berean, itxaropenaren eta lanerako unea da bizi duguna: modu batean edo

bestean, beti egin den moduan herriarekin zintzo jokatu, ezker abertzaleak aurrera egingo duela. Baina, batez ere sormen eta eraikuntza garaia dira oraingoak, anitzak dira herri honek sortu behar dituen ekimen nazionalak, eta bide horretatik jarraitu behar dugu. Herriz herri, auzoz auzo, gu ere ia ohartu gabe, euskal herritarren kontzientzia sendotzen ari da, horregatik erasotzen gaituzte, horregatik egingo dugu aurrera.

Mikel Arrieta

## HITZ BITAN

### ✓ UDALETXEKO ZERGAK

**Biñeta ordaintzeko epea ostirala arte.** Udaletxe zergabiltzailleak adierazi du martxoaren 21 dela ibilgailuen biñeta ordaintzeko azkeneko eguna. Zerga domiziliatua dutenei egun horretan kobratuko zaie eta gainerakoek ostiralerako pasa beharko dute Udaletxetik (aurreneko pisua, eskubia).

### ✓ MENDIRIZ MENDI

**Bihar azken eguna Pirineotako izena emateko.** Mendiriz Mendik Pirineotara irteera antolatu du asteburu honetarako. Irteera Madaméte (2.257 m) mendira da, Luz St Sauveur ingurura. Ibilbidea egokia da trabesiako eskiekin egiteko. Prezioa (bidaia eta pentsio erdia) 40 euro bazkideentzat eta 50 gainerakoentzat. Izena emateko epea bihar bukatuko da.

### ✓ ANDRAGOTO ATENEOA

**Sexualitateari buruzko hitzaldia gaur.** Andragoto ateneoak osasunari buruzko astea antolatu du eta gaurtik larunbaterara hitzaldiak izango dira. Gaur arratsaldeko 19:30etan Miren Telleria psikologo eta sexologoak emango du hitzaldia Andragoto (Izipuzua kalean): *Sexualitatea mundu aldakor batean*. Atzo, hipnoterapia klinikoari buruz hitz egin zuen Luis Ceballos terapeutak. Bihar Cristina Aznar ginekologa eta *Etxean jaio* elkarteko kideak jaiotzari buruz hitz egingo du Andragoto, 20:30etan.

### ✓ 'HITZORDUAK'

**Firma biltzeta bihar ferian.** *Hitzorduak* taldeak aurkezpen publikoa egin zuen ostiralean eta orduan iragarri bezala firma biltzetak egingo ditu aste honetan. Bihar osteguna, arratsaldeko 17:00etatik aurrera egongo dira *Hitzorduak*ekiko ki-dean Urbieta kalean (ferian). Larunbatean, berriz, eguerdiko 12:00etatik 14:00ak arte Plaza Berrian arituko da *Hitzorduak* babes firmak biltzen. *Hitzorduak* taldeak defenditzen duen planteamendua da hauteskundearen aurrean proiektu, idea eta pertsona guztiek aukera bera izatea. □

### I. URTEBETETZEA

#### Kristina Egiguren Atxega

2002ko martxoaren 19an hil zen  
*Sua bizirik dago  
galduak ez gara*



Haren animaren zuzendaria: Iñaki Aranzadi; seme-alabak: Arantxa eta Martin Zugasti; Begoña eta Mikel Amenabar. **jobak:** Olatz eta Benito; Yon eta Aikari; Ane eta Mario; Leire eta Pablo eta Miren; Beñat eta Guren; Maider eta Andoni; Nere eta Alberto. **Birjobak:** Gratxina, Ane, Katixa, Maddi eta Ekhi.

Oroigarri meza, **martxoaren 30ean, igandea**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokiari.

Hernanin 2003ko martxoaren 19an.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 006666  
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
☎ 943 552941  
▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24  
☎ 943 361529

### IRAGARKI MERKEAK

Eguneroko menuak zerbitzeko neska euskaldun bat nahi genuke, astelehenetik ostiralera. Hernanin bertan. Deitu: 615 74 17 99.

55 urteko emakume batek etxeko lanak egin, umeak zaindu edo antzeko lanak egingo lituzke. Erresposiblea eta langilea. Deitu: 943 55 54 36

LAGUNTZAILEA, agentea edo Justizi-offiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomata edo lizentziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oparoak. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babeguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitetz. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobekak. Betebeharra: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garraiolarri profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARI laguntzailleak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatua. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. eskakizuna: Eskola Graduatua. Presta zaitetz ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzaillea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzailleak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09